

2023ko Batzar Nagusia

Gai-zerrendako puntuak: 5

Som Energiaren kontu-hartzearen txostena

AURKIBIDEA

1. Testuinguru eta egikaritze-laburpena	1
2. 2022ko urteko kontuen onarpenaren babesa	2
3. Harremana Ekonomia eta Finantzen taldearekin eta Errektore Kontseiluarekin	3
4. Kontratuak eta fakturatutako energia	3
5. Emaizten kontua	4
6. Balantzea	5
7. Arriskuak eta aukerak finantza-ikuspuntutik	6
8. 2023ko aurrekontua	8

1. Testuinguru eta egikaritze-laburpena

- a) 2022 ere urte zaila izan da energiaren prezioen hegakortasunagatik eta araudiak izandako aldaketa ugariengatik.
- b) Jarduera ekonomikoaren aldagai batzuek kontrako noranzkoetan eboluzionatzen dute eta merezi du horiei arreta eskaintzea: Fakturatutako energiak eta kontratu-kopuruak behera egin dute; diru-sartzeek, marjinak eta ustiapen-gastuek, berriz gora.
- c) Prezioen eta merkaturatze-marjinaren igoerak ekitaldian oso emaitza positibo altua sortu dute.
- d) Altxortegiko soberakina sortu da eta aurreikusi da inbertsioetarako eta halabeharretarako erreserbarako erabiltzea.
- e) Energiaren gehiengoa aurretiaz erosteak (etorkizunen merkatuan) tarifak finkatzen eta kaudimena mantentzen laguntzen du. Baina, eguneko merkatuaren eboluzioaren arabera, tarifa horiek lehiakideenak baino merkeagoak edo garestiagoak suerta daitezke. Etorkizunen merkatuarekiko mendekotasuna gutxitzeko, ekoizpen propioa handitzea eta tarifa indexatu aldakorra eskaintzea komeni da. Gainera, azken horrek kooperatibista berriak erakar ditzake.
- f) Asomada Solarreko zentralerako lehenengo *project finance*¹ zehaztu da Fiarerekin. Formula horrekin, Som Energiak proiektu-kopuru handiagoa diruztatu ahalko du zorpetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe.
- g) Ia bazkideen % 10ek dituzte instalazio fotovoltaiakoak. Horiek bultzatzen jarraitzea, energia-komunitateei laguntzea eta soberakinen konpentsazioa doitzea komeni da. Kooperatibaren xedearen zati diren jarduera horiei ematen zaien laguntza ere ekonomikoki jasangarria eta etorkizunean iraunkorra izateko formula bilatu behar da.

2. 2022ko urteko kontuen onarpenaren babesa

Indarrean dauden Som Energiaren estatutuen 53. artikulua Batzarrak kontu-hartzaile hautatzen dituen pertsonen funtzioak zehazten ditu. Artikulua eta legedi aplikagarriak biltzen dituen erantzukizunak jarraituz, igortzen ditugu enpresaren kudeaketari buruzko azalpen-memoriaren txostena, balantzea, emaitzen kontua eta derrigorrez 2023ko Batzar Nagusiaren menpe jartzen diren beste dokumentu batzuk.

Gure iritziz, txosten honek amaiera ematen dio ekonomia-, finantza-, ondare- eta kontabilitate-kudeaketa ezagutu eta hari buruz ahalik eta ikuspegi egokiena emateko egindako lanari. Erraztasunez jardun dugu Ekonomia eta Finantzetako taldearekin lankidetzan. Enpresa nagusiari eta partaidetzapeko enpresei buruzko beharrezko informazioa eman digute, eskuragarri zegoen neurrian. Planteatu ditugun gaiei buruzko erantzunak eta azalpenak jaso ditugu. Informazioa zehatz-mehatz ulertzeko eta osatzeko beharrezkoak ziren bilerak antolatu ditugu eta era libre eta independentean adierazi ahal izan dugu iritzia.

¹ Project finance = Hasieran bereziki kostu handiko inbertsioa behar duten eta oso epe luzera errentagarri bihurtzen diren azpiegitura- edo energia-proiektu handien finantziaketa. Zorraren ordainketaren bermea oso erraz aurreikus daitezkeen diru-sarrerak eta azpiegitura bera dira.

Emandako informazioaren analisia egin dugu. Geure informazioan eta irizpidean oinarrituz, *Som Energia S.C.C.L.-ren 2022 ekitaldiko egoera-balantze eta galdu-irabazien kontuak, nagusitasuna duen partaidetzapeko sozietateenak eta Grup Som Energiaren balantze bateratuak era egoki eta fidelean islatzen dute haien finantza- eta ondare-egoera eta egindako eragiketen emaitza. Som Energiaren eta taldearen memoriek urteko kontuak osatzen ditzuzte eta dokumentu horiek ulertzeko nahikoa informazio ematen dute.*

Beraz, **2023ko Ohiko Batzar Nagusiak aurkeztutako 2022 ekitaldiko urteko kontuak onartzea proposatzen dugu.**

Ekitaldi honetako eta aurrekoetako berrikuspenen emaitza gisa, ekonomia-, finantza- eta ondasun-kudeaketari buruzko gai batzuen inguruan dugun iritzia adieraziko dugu. Alde batetik, osatu nahi dugu (bikoiztu gabe) kanpoko kontuen auditoretza, bestetik, Ekonomia eta Finantzen taldeak garatutako azalpen-txostena. Beraz, aldeztu aurretik bi dokumentu horiek irakurtzea gomendatzen dugu.

3. Harremana Ekonomia eta Finantzen taldearekin eta Errektore Kontseiluarekin

- 2021a bezala, 2022a ere urte zaila izan da kooperatiban energiaren prezioen hegakortasunagatik eta araudiak izandako aldaketa ugariengatik (BEZa, gasaren gehiengoak doitzeko «gasaren topea» mekanismoa, etab.). Errektore Kontseiluari eta Talde Teknikoari egindako esfortzua eta emaitza onuragarriak kudeaketa eskertu nahi dizkiegu.
- Errektore Kontseiluak, Ekonomia eta Finantzen taldeak eta Kontu Hartzaileak barne-dokumentu bat idatzi dugu organo horri, izan behar duen informazioari eta aldizkakotasunari, bilera-egoteiari eta igorriko dituen txostenei buruz. Aplikatzeko eta oinarritzeko denean, Barne Araudira gehituko da Batzarrean aurkeztu ondoren eta han onartu aurretik.
- Gainera, ekonomiaren eta finantzen arloan erreminta berriak gehitzeko zehaztutako egutegi batekin lanean aritzea mesedegarria dela uste dugu. 2024 hasieratik, kooperatibari kontrol eta fidagarritasun handiagoa izatea ahalbideratuko diote.

4. Kontratuak eta fakturatutako energia

Kontabilitateko informazioaz hitz egin aurretik, interes berezia duten hiru datu islatuko ditugu:

Kontzeptua	2022	2021	Aldakuntza (%)
Kontratuak urte amaieran	123.400	133.260	-% 7,4
Fakturatutako MWh	373.044	433.026	-% 13,9
Bazkideak	83.765	77.528	% 8,0

Bestalde, 2022an kontratu-kopuruak behera egin du eta are gehiago fakturatutako energiaren bolumenak. Kontratuen jaitsiera artagarriak bi kausa ditu:

- a) Baja behartuak. Lotutako pertsonarik (fisikorik ez juridikorik) gabeko 7.439 kontratuen jabeek bazkide egiteko edo kontratua uzteko eskatu zaie. Gutxi gora behera erdia bazkide egin da eta gainontzekoa beste merkaturatzaile batera aldatu da.
- b) Urtearen lehenengo zatian inprimakiak (kontratu berriak egitekoak) itxi ziren.
- c) Beste merkaturatzaile batzuetara aldatu direnen borondatezko bajak. Funtsean, prezio-eskaintza oldarkorregatik².

Horren inguruan, gogoratu behar dugu Som Energiaren tarifak energia berdearen merkatuan lehiakorrek izatea garrantzitsua dela.

Bestalde, fakturatutako energiaren bolumenaren oraindik jaitsiera handiagoak beste bi elementu ditu:

- a) Kontratuen bajeen zati handi bat etxeko kontsumitzaile ez direnenak izan dira.
- b) Autokontsumo kontratuek (ia 8.000 dira) fakturatutako energia-kopurua murrizten dute.

Edonola ere, kontratuen eta fakturatutako energiaren jaitsierak kooperatibaren ibilbide historikoan joera-aldaketa bat adierazten dute.

Bazkide kopuruak, berriz, gora egiten jarraitu du, neurri batean lotu gabeko kontratuen jabeek bazkide egiteko egindako eskaeragatik. Helburu desiragarri baterantz aurrera egin dela ulertzen da, kontratu guztiak bazkideen izenean egotea hain zuzen. Horrela denek egingo lukete ekarpena derrigorrezko kapital sozialera.

5. Emaizten kontua

Elementu garrantzitsuenak atera eta horiek bakarrik komenta ditzagun³:

Kontzeptua <i>Zenbatekoak milioi eurotan (M €)</i>	2022 %	2021 %	Aldak. %	Oharrak
<i>Saldutako GWh kopurua</i>	373	433		
Energiaren salmenta	134,22 % 10	79,21 % 10	% 69	
Energiaren kostua (M €)	117,94 -% 8	73,92 -% 9	% 60	
Merkaturatze-marjina	16,28 % 12	5,29 % 7	% 20	(a)
<i>Marjina KWh-ko euro-zentimotan</i>	4,36	1,22	8	(b)
Langileen gastuak	-4,57	-3,73		

² Anonimotasuna mantendu nahi duen Kontu Hartzailetzaren hiru kideetako baten auzokide batek, honela laburtzen du dilema: «Aktibista petoa naiz, baina poltsiko apala dut».

³ Onartzeko aurkezten diren 2022ko urteko kontuek emaitzen kontu osoa barne hartzen dute. Informazio zehatzagoa lortzeko, ikusi Ekonomia eta Finantzen taldeak prestatutako «Som Energiako 2022ko urteko kontuen azalpen-txostena».

Kanpo-zerbitzuen gastuak	-2,13	-1,52		
Eragiketa arruntetako gastuen guztizkoa	-6,70	-5,25	% 28	(c)
Eragiketa arruntetako emaitza	9,58	0,04		
Beste sarrera eta gastu batzuk	0,23	1,67		(d)
Esportazioaren emaitza	9,81	1,71		
Finantza-emaitza (Sarrerak - gastuak)	-0,68	-0,10		
Emaitza zergen aurretik	9,13	1,60		
Zergak	-1,81	-0,31		
Emaitza zergen ondoren	7,32	1,29		(e)

- a) **Merkaturatze-marjina** % 7tik % 21era igo da.
- b) Fakturatutako **kWh-en marjina** ia laukoiztu egin da.
- c) **Eragiketa arruntetako gastuak** (kooperatibaren egituraren gastuekin pareka daitezkeenak) % 28 hazi dira, fakturatutako energiaren bolumena eta kontratu-kopurua, berriz, murriztu egin dira. Arreta eskaini behar zaio gastu finkoak aurreko datuekin bat datozela ziurtatzeari, batez ere merkaturatzearen eta egituraren arloetan. Etorkizuneko agertoki posible batean, energiaren prezioek 2020 aurreko prezio-mailetara behera egiten badute, egitura-gastuek merkataritza-marjinaren (energia erostearen eta saltzearen arteko aldea) zati handiagoa osatuko lukete.
- d) 2021ean IAE zorragatik zegoen hornidura bat ezeztatu zenez aparteko irabaziak lortu ziren.
- e) 2022ko ekitaldiaren **emaitza** altua prezioen igoeraren (134,22 M €) eta merkaturatze-marjinaren igoeraren (16,28 M €) ondorioa da aldi berean. Azken hori ohiz kanpokoa iruditzen zaigu, batez ere prezioen igoeraren testuinguruan, baina ez da bilatutakoa izan. Tarifa aldaketa ugariak eta eskariaren gorabeherak izan dira helburutik izandako desbideraketa horren kausa.

6. Balantzea

Erator dezagun balantze ulergarriago bat eta aipa ditzagun elementu garrantzitsuenak⁴:

AKTIBOA - Kooperatibaren baliabide ekonomikoak (milioi eurotan)	2022	2021	Aldea
A) EPE LUZEKO AKTIBOA⁵	13,74	14,95	-1,21
Sorkuntza berriztagarriko zentraletan egindako inbertsioak	12,56	13,64	-1,09
Lurrak eta epe-luzeko beste aktibo ibilgetu batzuk	1,19	1,31	-0,13
B) AKTIBO KORRONTEA	56,06	39,10	16,96
Bezeroak (kobratzeke dauden zenbatekoak)	11,64	7,93	3,71
Ogasuna (Som Energiari zor dizkion zenbatekoak)	3,21	7,98	-4,78
OMIEren bermeak eta energiaren etorkizun-estaldura	18,19	16,08	2,11
Bestelako aktibo korrronteak (epe motzera)	1,21	1,20	0,01

⁴ Ikus 2. oharra. Balantzeari irizpide bera aplikatu diogu.

⁵ Epe luzea esatean urte bat baino denbora-tarte luzeagoez ari gara.

Altxortegia	21,81	5,90	15,91
AKTIBOAREN GUZTIZKOA (A + B)	69,80	54,05	15,75
ONDARE GARBI ETA PASIBOA - Aktiboaren baliabideak sortzen dituzten funtsen jatorria (milioi eurotan)	2022	2021	Aldea
A) PATRIMONIO GARBIA (bazkideak eta kooperatibaren jardura)	43,90	33,54	10,36
Kapitala (bazkideak)	31,83	28,79	3,04
Erreserbak (berriro inbertitzen diren emaitza positiboak)	12,07	4,75	7,32
B) PASIBO EZ-KORRONTEA (epe luzera)	9,41	8,52	0,89
Zorrak epe luzera bankuekin	2,30	2,07	0,23
Zorrak bazkideekin (<i>Generation kWh</i> eta itzul daitekeen BKS ⁶)	6,43	6,33	0,10
Hezkuntzarako, formakuntzarako eta sustapenerako funtsa	0,68	0,12	0,56
C) PASIBO KORRONTEA (epe motzera)	16,49	11,99	4,50
Zorrak bankuekin epe motzera	2,88	5,15	-2,27
Hornitzaileak	11,23	5,43	5,80
Ogasuna (ordaintzeke dauden zenbatekoak)	2,29	1,32	-0,55
Bestelakoak (hornidurak epe motzera)	0,09	0,09	-0,01
ONDARE GARBI ETA PASIBOAREN GUZTIZKOA (A + B + C)	69,80	54,05	15,75

- a) **Altxortegiaren** balioa (21,81 M €) altua iruditzen bazaigu ere justifikatuta dago. Espero dugu laster sorkuntzan eta proiektu berrietan inbertsioak egiteko erabiltzea. Zentzu horretan, hiru aurreikuspen jakinarazi dizkigute:
- Proiektu berrietarako inbertsio-plan bat, 5 M €-takoa. Uste dugu egungo altxortegiak inbertsio-plan handiago bat egiteko aukera ematen duela, hala ere ulertzen dugu proiektu egokiak aurkitzea ez dela erraza.
 - Etorkizun-estalduretarako bermeak erostera bideratutako funtsak 2 M € handitzea.
 - Prezioen beherako joera orokorra aurreikusten bada ere, joera horrek ere egoera konplexuei aurre egiteko baliabide gehigarriak beharko dituzten aldaketa erabakigarriak barne hartzen ditu.
- b) **Ondare garbia** (sozietatearen oinarritik datozen baliabideak eta jardura kooperatiboaren emaitza positibo gisa) balantzearen % 60a baino gehiago osatzen du. Horrek kaudimenerako eta etorkizuneko likidezarako segurtasuna ematen du. Kreditu erakundeei dagokienez, ez legoke zorpetzeko arazorik etorkizuneko egoerak hori galdatuko balu.

⁶ BKS = borondatezko kapital soziala.

7. Arriskuak eta aukerak finantza-ikuspuntutik

Jarduera komertzial orotan bezala, salgaien hornikuntza eta haien kostua elementu erabakigarria da salmenten garapenerako.

- a) Som Energiak aldeaz aurretik erosten du merkaturatzen duen energiaren % 80 inguru **etorkizunen kontratuen**⁷ bidez eta, askoz neurri txikiagoan, zentral propioekin dituen energiaren salerosketa-kontratuen bidez (PPA⁸). Erosketa-prezio ezagunarekin, kooperatibak eskaintzen dituen tarifen salmenta-prezioa ezartzen du. Bestalde, aritzeko era hori ezinbestekoa iruditzen zaigu kaudimen-arriskuak ekiditeko. Bestalde, jarduteko era horrek eragiten du batzuetan Som Energiaren hornikuntza-kostua eguneko merkatuaren azpitik egotea (2022ko lehenengo lauhilekoan adibidez) eta beste batzuetan horren gainetik egotea (bigarren lauhilekoan esate baterako). Hori dela eta kooperatibaren tarifak batzuetan lehiakideekin alderatuta «erakargarriak» dira eta beste batzuetan ez hainbeste.
- b) Merkaturatzen den energiaren gainerako % 20a **eguneko merkatuan** erosten da (OMIE). Aurten erosteko kostuak behera egin du azken lauhilekoan. Horrek aparteko soberakin kooperatiboa⁹ lortzea eragin du, salmenta-tarifak etorkizunen hornidura-kostuaren eta PPAen arabera finkatuta zeudelako. 2021ean eta 2022an izandako hegakortasun handia ikusita, kooperatibak tarifen prezioak eguneratzerakoan zuhurtasun-printzipioa aplikatu izana egokia iruditzen zaigu.
- c) Som energiak **ekoizpen propioa** handitu nahi du errazago aurreikus daitezkeen eta egonkorragoak diren salmenta-tarifak izateko. Gainera, etorkizunen kontratuen eta gordailututako bermeen kostuak murriztea ahalbideratuko luke. Orain kooperatibak kontuan hartzeko neurriak dituen sorkuntza-taldea du eta 2023-2026 urteetarako sorkuntza-estrategia bat. Sorkuntza-estrategia hori garatzen jarraitzera animatzen dugu kooperatiba, kooperatibaren gainontzeko alderdiekin bateratuz eta arreta eskainiz sektoreko sorkuntza-agertoki posibleei, merkatuan prezioek duten bilakaerari eta horrek Som Energiako ekintzetan duen eraginari.
- d) **Ekoizpen propioaren finantziazioari** dagokionez, Ekonomia eta Finantzen taldeak lehenengo *project finance*¹⁰ izeneko mamitu du Cartagenako Asomada Solar zentrolean. Zentral hori Asomada Solar, S.L. sozietatearena da (zeinen partaidetzaren % 100a Som Energiak duen) eta Som Energiaren finantziazioarekin eraiki zen. *Project finance*-ren bidez, Fiare Banca Éticak zuzenan Asomada Solar, S.L. diruztatu du eta horrek Som Energiari jasotako finantziazioaren zati bat itzuli ahal izan dio.

⁷ Etorkizunen kontratuetan alderdiek ondasun bat saltzeko eta erosteko konpromisoa hartzen dute (gure kasuan elektrizitatea) etorkizuneko momentu zehatz batean eta adostutako prezio bat ordainduta.

⁸ *Power Purchase Agreements*: kontratu horietan alderdiak adostutako prezio batean erostera eta saltzera behartuta daude aldeaz aurretik zehaztutako denbora-tarte batean zehar (normalean hainbat urte).

⁹ Mugimendu kooperatibistaren terminologian, soberakin kooperatiboa eragiketa arruntetako irabazien baliokidea da.

¹⁰ *Project finance* = Azpiegitura edo energia-proiektu handien finantziazioa, zeintzuetan hasierako inbertsioak bereziki kostu handia duen eta errentagarri bihurtzeko oso denbora luze behar den. Zorraren ordainketaren bermea oso erraz aurreikus daitezkeen diru-sarrerak eta azpiegitura bera dira.

Ustez finantziazio-eredu hori etorkizunean beste zentral batzuetan aplikatu ahalko da, baita jada existitzen direnetan ere, esate baterako Asomeda Solarren, betiere finantza-kostuak kontrolatuz. Horrela, Som Energiak finantza-gaitasuna zentral-kopuru handiago baterako erabili ahalko luke, kasu guztietan merkaturatutako energiaren ahalik eta zati handiena ekoizpen propiotik lortzeko helburuarekin.

- e) Laster, egungo prezio finkoko tarifen eskaintza osatu egingo da eguneko merkatuko preziodun **tarifa aldakor indexatu** batekin. Eskaria kudeatzeko gaitasuna duten pertsona guztientzat egokia izango da, elektrizitatearen erabilera eguneko ordurik merkeenetara mugitu ahalko baitute. Kooperatibara kontratu berriak erakartzeko aukera izan daiteke: zortzi milioi inguruk erregulatutako KTBP tarifa dute, baina ez dute gizarte-bonua eskuratzeko eskubiderik. Gainera, energiaren hornikuntza murrizten laguntzen du etorkizunen kontratuen eta horren kostuen bidez, eta ondorioz, kooperatibaren marjinaren ziurgabetasuna murrizten da.
- f) Som Energiak banakako- edo talde-**autokontsumorako** ia 8.000 **kontratu** ditu, horietatik 5.000 kooperatibak sustatutako instalazio fotovoltaikoen erosketa kolektiboen fruitu dira. 2022an bakarrik 1.000 baino gehiago instalatu dira. Hori gure kooperatibaren eta bazkideen aktibismoaren sendotasunetako bat da.

Soberakinen konpentsazio sinplifikatura atxikitako kontratuetan araudia aplikatu da soberakinen hileko balio ekonomikoak sarean erabilitako energiaren balio ekonomikoak ez gainditzeko moduan. Hala ere, ikusten dugu aurrerantzean konpentsatu gabeko soberakinez ere arduratzeko jarduteko modu berri batean lanean ari direla ikusten dugu. 01-01-2022tik izango ditu ondoreak. Horretarako 400.000 €-ko hornikuntza egin da 2022ko emaitzaren kontura.

Edonola era, Som Energiak soberakinen prezioak konpentsatzeko erabili beharreko irizpideei buruzko eztabaida egiteke dago.

Kompentsatu gabeko soberakinek kooperatibari hornidura-kostu baxuagoa izatea eragiten diote nahiz eta orain eragin gutxi izan. Autokontsumoaren sustapenak gora egingo du etxebizitza familiabakarretan zein etxebizitza-blokeetan.

- g) 2022an zehar, Talde Teknikoak **energia-komunitateei** laguntzeko eta haien garapena babesteko 293.061 euroko baliodun erreminta teknologikoak garatu ditu Kataluniako Generalitatearen *Singulars* proiektuaren diru-laguntzarekin. Espero dugu kooperatibaren gizarte-xedeekin eta jasangarritasun ekonomikoarekin bateragarria den negozio-eredu bat aurkitzea.

8. 2023ko aurrekontua

Batzarrari 2022 amaieran garatu zen 2023rako aurrekontua proposatu zitzaion. Ulertzen dugu orduan eskuragarri zeuden datuekin eta ahal zen estimazio onena eginez garatu zela.

Gure iritziz interesgarria izango litzateke hurrengo urteetarako hasi den urteko lehenengo hiruhileko datu errealak (itxitako etorkizunen kontratuak barne) eta urtearen gainerakorako estimazioa gehituta aurkeztea.

Kontzeptua	2023	2022aren itxiera
Merkaturatutako kWh kopurua	377.962.428	373.044.000
Sarrera garbiak	141.721.684	133.954.940
Hornikuntza-gastuak	-132.748.419	-117.943.588
MERKATURATZE-MARJINA	8.973.266	16.011.352
Ustiapenaren bestelako sarrerak	490.870	563.075
Soldata-gastuak	-6.267.858	-4.572.465
Ustiapenaren gastuak	-2.774.039	-2.130.444
Tributuak	-26.500	-43.089
Hornikuntzak	-250.000	-336.131
Bestelako emaitzak	1.255.088	1.029.304
Jardueraren kostu garbiak	-7.572.439	-5.489.749
EBITDA	1.400.827	10.521.603
Hezkuntzako funtsaren zuzkidura	216.207	-646.096
Amortizazioak	-126.000	-67.885
Finantza-emaitza	-223.363	-679.191
Bestelako gastuak eta finantza-gastuak	-133.156	-1.393.173
ZERGEN AURREKO EMAITZA	1.267.671	9.128.430
Sozietateen gaineko zerga	-265.266	-1.807.995
EKITALDIAREN EMAITZA	1.002.405	7.320.435

- a) Aurrekontuan sartutako **merkaturatze-marjina** 2022an lortutakoa (% 12) baino askoz gehiago doitzen da (% 6,3).
- b) **Egitura-gastuek** berriz ere gora egiten dute, % 35eko igoera da. Igoera hori proiektu berrien (sorkuntza-proiektuak besteak beste) alde egindako apostu irmo batengatik bada ere, epe ertainera egiturazko gastu gehigarri horiek mantentzea ahalbidetzen duten diru-sarrerak lortuko direla bermatu behar da.
- c) Aurrekontua Batzarrean onartutako tartearen barruan, salmenten % 1eko EBITDA lortzeko egin da.

Azkenik, Ekonomia taldea zoriondu nahi dugu erreminta eraginkorrago baten faltan, aurrekontu hauetan kontabilitate analitikoa ezartzen hasi delako¹¹. Integratuta dagoenean, finantzen ikuspegi osoagoa izatea eta kooperatibaren jardura bakoitzerako erabaki hobeak hartzea ahalbideratuko du.

¹¹ Kontabilitate analitikoak jardura-ildo bakoitzaren gastuak, diru-sarrerak eta emaitzak banatuta antolatzen ditu.